

SALGAIAK/MERCANCIAS

A

2024/01/26



1. Espainian, ibilgailu arinekin lan egiten duten salgaien garraioeko enpresek:	
a.	enpresen kontzentrazio maila handia dute.
b.	enpresen atomizazio maila handia dute.
c.	enpresen atomizazio maila txikia dute.
d.	aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

1. Las empresas de transporte de mercancías que trabajan con vehículos ligeros en España presentan:	
a.	alto nivel de concentración empresarial.
b.	alto nivel de atomización empresarial.
c.	bajo nivel de atomización empresarial.
d.	Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

2. Nola esaten zaio balaztatzean kamioi baten atzeko ardatzak jasaten duen pisuaren zati bat aurrerantz pasatzen den ekintzari?	
a.	Masen desplazamendua.
b.	Balantza
c.	Keinada
d.	Kulunka.

2. ¿Cómo se denomina la acción que sucede al frenar cuando parte del peso que soporta el eje trasero de un camión pasa hacia delante?	
a.	Desplazamiento de masas.
b.	Cabeceo.
c.	Guiñada.
d.	Balanceo.

3. Malda bat igotzean martxa-aldaketa bat egiten den bakoitzean, une batean kamioiak potentzia galtzen du. Zeren mende daude potentzia-galera horiek?	
a.	Gidariaren esperientziaren mende.
b.	Aldaparen inklinazioaren eta ibilgailuaren masaren mende.
c.	Hozte-fluxua handitzearen mende.
d.	Temperatura jaistearen mende.

3. Cada vez que se realiza un cambio durante la subida de una pendiente, existe un instante en el que el camión pierde potencia. ¿De qué dependen estas pérdidas de potencia?	
a.	De la experiencia del conductor.
b.	De la inclinación de la pendiente y de la masa del vehículo.
c.	Del aumento del flujo de refrigeración.
d.	De la disminución de la temperatura.



4. Kamioi baten gidariak zenbat eta martxa-aldaketa gutxiago egin igoera batean:	
a.	orduan eta gehiagotan galduko da abiadura, orduan eta gehiagotan berreskuratu beharko da eta, beraz, beranduago iritsiko da gailurrera.
b.	orduan eta gehiagotan galduko da abiadura, orduan eta gehiagotan berreskuratu beharko da eta, beraz, lehenago iritsiko da gailurrera.
c.	orduan eta gutxiagotan galduko da abiadura, orduan eta gutxiagotan berreskuratu beharko da eta, beraz, beranduago iritsiko da gailurrera.
d.	orduan eta gutxiagotan galduko da abiadura, orduan eta gutxiagotan berreskuratu beharko da eta, beraz, lehenago iritsiko da gailurrera.

4. Cuantos menos cambios de marcha realice el conductor de un camión durante una subida:	
a.	más veces se perderá velocidad, más veces se tendrá que recuperar y, por tanto, se llegará más tarde a la cumbre.
b.	más veces se perderá velocidad, más veces se tendrá que recuperar y, por tanto, se llegará antes a la cumbre.
c.	menos veces se perderá velocidad, menos veces se tendrá que recuperar y, por tanto, se llegará más tarde a la cumbre.
d.	menos veces se perderá velocidad, menos veces se tendrá que recuperar y, por tanto, se llegará antes a la cumbre.

5. Indar hauetatik, zeinek esku hartzen du kamioi batean?	
a.	Itsaspen indarrak.
b.	Indar handienak.
c.	Indar txikienak.
d.	Indar nuluak.

5. ¿Cuál de las siguientes fuerzas intervienen en un camión?	
a.	La fuerza de adherencia.
b.	La fuerza mayor.
c.	La fuerza menor.
d.	La fuerza nula.

6. Garraioan animaliak babesteari buruzko 1/2005 (EE) Erregelamenduaren arabera, bidaia luzetzat hartzen da iraupen hau baino luzeagoa duena:	
a.	4 ordu.
b.	8 ordu.
c.	16 ordu.
d.	32 ordu.

6. Según el Reglamento (CE) 1/2005, relativo a la protección de los animales durante su transporte, se considera viaje largo aquel que tiene una duración superior a:	
a.	4 horas.
b.	8 horas.
c.	16 horas.
d.	32 horas.

7. ATP Akordioaren arabera, zein ibilgailu identifikatzen dute IN letrek?	
a.	Isotermo normala.
b.	Isotermo indartua.
c.	A motako hoztu normala.
d.	A motako hoztu indartua.

7. Según el acuerdo ATP, ¿a qué vehículo identifican las letras IN?	
a.	Isotermo normal.
b.	Isotermo reforzado.
c.	Refrigerado normal de la clase A.
d.	Refrigerado reforzado de la clase A.



8.	Europar Batasuneko araudiaren arabera, zer balio epe du Espainiak emandako salgaien garraioko Europar Batasuneko lizentzia batek?
a.	8 urte.
b.	10 urte gehienez.
c.	6 urte gehienez.
d.	Zehaztugabea.

8.	¿Cuál es, según la reglamentación comunitaria, el plazo de validez de la licencia comunitaria para el transporte de mercancías?
a.	Hasta 8 años.
b.	Hasta 10 años.
c.	Hasta 6 años.
d.	Indeterminado.

9.	Zer da azpibiratzea kamioi batek bihurgune bat hartzen duenean?
a.	Benetako ibilbidea egin beharko lukeena baino irekiagoa da.
b.	Benetako ibilbidea egin beharko lukeena baino itxiagoa da.
c.	Kamioiaren ibilbidea erreiz aldatzen denean.
d.	Kamioia iraultzea bihurgunea balaztatzen hartzen denean.

9.	¿Qué se entiende por subviraje en una curva tomada por un camión?
a.	La trayectoria real es más abierta que la que debería realizar.
b.	La trayectoria real es más cerrada que la que debería realizar.
c.	La trayectoria del camión cuando cambia de carril.
d.	El vuelco del camión al tomar la curva frenando.

10.	Salgaia horretarako den konpartimentuan behar bezala ez banatzeak zeri eragiten dio zuzenean?
a.	Zamari bakarrik.
b.	Garraioa egiteko denbora gehiago behar izateari.
c.	Ibilgailuaren egonkortasuna eta maniobragarritasuna murrizteari, istripu-arriskua handituz.
d.	Erregai-kontsumoa handitzeari.

10.	¿A qué afecta directamente el incorrecto reparto de la mercancía en el compartimento destinado al efecto?
a.	A la carga exclusivamente.
b.	Al incremento del tiempo necesario para realizar el porte.
c.	A la disminución de la estabilidad y maniobrabilidad del vehículo, incrementándose el riesgo de accidente.
d.	Al aumento del consumo de combustible.



11. Behar al da baimenik 1,5 tonako baimendutako gehieneko masa duen ibilgailu batean salgaien garraio publikoa egiteko?	
a.	Ez.
b.	Bai.
c.	Ibilgailu hoztua bada bakarrik.
d.	Salgai galkorrak garraiatzen badira bakarrik.

11. ¿Se necesita autorización para realizar transporte público de mercancías en un vehículo de 1,5 toneladas de MMA?	
a.	No.
b.	Sí.
c.	Solo si el vehículo es refrigerado.
d.	Solo si el transporte es de mercancías perecederas.

12. Balaztatzeko unean, zerk saihets dezake masa-transferentzia handiegia ardatz batetik bestera?	
a.	Gidariaren pisuak.
b.	Kargaren banaketa onak baino ez.
c.	Kargaren estibatze onak baino ez.
d.	Kargaren estibatze eta banaketa onak.

12. En el momento de la frenada, ¿qué puede evitar una transferencia excesiva de masas de un eje a otro?	
a.	El peso del conductor.
b.	Solamente una buena distribución de la carga.
c.	Solamente una buena estiba de la carga.
d.	Una buena estiba y distribución de la carga.

13. Zer dira CEMT baimenak?	
a.	Enpresa-baimenak dira.
b.	Ibilgailu bakoitzeko banakako baimenak dira.
c.	Kasu batzuetan, enpresa-baimenak dira, eta beste batzuetan, ibilgailu bakoitzeko banakako baimenak.
d.	Gaur egun ez dago CEMT baimenik.

13. Las autorizaciones CEMT son:	
a.	autorizaciones de empresa.
b.	autorizaciones individualizadas por vehículo.
c.	en unos casos, de empresa, y en otros, individualizadas por vehículo.
d.	En la actualidad no existen autorizaciones CEMT.

14. Beharrezkoa al da gidari-ziurtagiria Europar Batasunean salgaien nazioarteko liberalizatu gabeko garraioa egin ahal izateko?	
a.	Bai, kasu guztietan.
b.	Inola ere ez, nahikoa baita Batasuneko lizentzia.
c.	Bai, gidaria hirugarren herrialde batekoa denean.
d.	ADRri lotutako salgai arriskutsuak garraiatzen badira bakarrik.

14. ¿Es necesario un certificado de conductor para poder realizar transportes internacionales de mercancías no liberalizados en el ámbito de la Unión Europea?	
a.	Sí, en todos los casos.
b.	En ningún caso, pues basta con la licencia comunitaria.
c.	Sí, cuando el conductor sea nacional de un tercer país.
d.	Solo si se transportan mercancías peligrosas sujetas al ADR.



15. CMR hitzarmenari lotutako garraio-kontratu batean, garraio-gutunean hitzarmen horren mende dagoela aipatzen ez bada, nor izango da ez-egite horrek salgaiaren jabeari eragindako gastuen eta kalteen erantzulea?	
a.	Bidaltzailea.
b.	Garraiolaria.
c.	Hartzailea.
d.	Zamatzailea.

15. En un contrato de transporte sujeto al Convenio CMR, si la carta de porte no contiene la mención de que está sometido a dicho convenio, ¿quién responderá de los gastos y daños ocasionados por tal omisión al propietario de la mercancía?	
a.	El remitente.
b.	El transportista.
c.	El destinatario.
d.	El cargador.

16. CMR hitzarmenari lotutako garraio-kontratu batean, bidaltzaileak xedapen-eskubidea baliatzeko, beharrezkoa da:	
a.	garraio-gutunaren lehen alea aurkeztea, garraiolariari emandako jarraibide berriekin.
b.	garraio-gutunaren bigarren alea aurkeztea, garraiolariari emandako jarraibide berriekin.
c.	garraio-gutunaren hirugarren alea aurkeztea, garraiolariari emandako jarraibide berriekin.
d.	garraio-gutunaren laugarren alea aurkeztea, garraiolariari emandako jarraibide berriekin.

16. En un contrato de transporte sujeto al Convenio CMR, el ejercicio del derecho de disposición por el remitente exige:	
a.	presentar el primer ejemplar de la carta de porte con las nuevas instrucciones dadas al transportista.
b.	presentar el segundo ejemplar de la carta de porte con las nuevas instrucciones dadas al transportista.
c.	presentar el tercer ejemplar de la carta de porte con las nuevas instrucciones dadas al transportista.
d.	presentar el cuarto ejemplar de la carta de porte con las nuevas instrucciones dadas al transportista.

17. Aduana ondorioetarako, zer da Melillan erabat lortutako salgai bat?	
a.	Batasuneko salgaitzat hartzen da, ondorio guztietarako Espainiako estatuko beste puntu batean lortutakoaren berdina.
b.	Estatutu berezia duen Batasuneko salgaitzat hartzen da.
c.	Batasunekoa ez den salgaitzat hartzen da.
d.	Salgai-motaren arabera izaera bat edo bestea izango du.

17. ¿Qué consideración tiene, a efectos aduaneros, una mercancía obtenida totalmente en Melilla?	
a.	Se considera mercancía de la Unión, igual a todos los efectos que si hubiera sido obtenida en otro punto del Estado español.
b.	Se considera mercancía de la Unión con estatuto especial.
c.	Se considera mercancía no perteneciente a la Unión.
d.	Depende del tipo de mercancía de que se trate.



18. Zeri aplikatzen zaio Batasunaren kanpo-igarotzearen erregimena?	
a.	BEZa aplikatzen den Europar Batasuneko lurralde batetik BEZa aplikatzen ez den beste lurralde batera igortzen diren Batasuneko salgaiei.
b.	Europar Batasuneko aduana-lurraldeko puntu batetik bestera igortzen diren Batasuneko salgaiei, Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialde batetik pasatuta.
c.	Aduana-zergen menpe dauden eta Batasunekoak ez diren salgaiei.
d.	B eta C erantzunak zuzenak dira.

18. El régimen de tránsito externo de la Unión se aplica:	
a.	a las mercancías de la Unión que se expiden desde un territorio comunitario en el que se aplica el IVA a otro en el que no se aplica.
b.	a las mercancías de la Unión que se expiden desde uno a otro punto del territorio aduanero de la Unión Europea, pasando por un país de la Asociación Europea de Libre Comercio.
c.	a las mercancías no pertenecientes a la Unión sujetas a aranceles aduaneros.
d.	Las respuestas B y C son correctas.

19. Salgaien garraio publikorako baimen baten titularrak noiz egin dezake bitartekari lana garraioa kontratatzeko?	
a.	Garraio operadore izateko baimena lortzeko eskatzen diren baldintza berdinak edo handiagoak egiaztatzen dituzenean.
b.	Beste garraiolari batzuen lankidetzaren erregelamendu bidez ezarritako moduan erabiltzera mugatzen denean.
c.	Egokitzat joko duen guztietan, inolako baldintzarik eta mugarik gabe.
d.	A eta B erantzunak zuzenak dira.

19. ¿Cuándo podrá el titular de una autorización de transporte público de mercancías intermediar en la contratación de transporte?	
a.	Cuando haya acreditado para su obtención requisitos iguales o superiores a los exigidos para obtener la autorización de operador de transporte.
b.	Cuando se limite a utilizar la colaboración de otros transportistas en los términos fijados reglamentariamente.
c.	Siempre que lo considere oportuno, sin ningún tipo de condición ni limitación.
d.	Las respuestas A y B son correctas.

20. Zer ibilgailu erabil ditzake operadore logistiko batek bere jardueraren garatzeko?	
a.	Norberarenak bakarrik.
b.	Besterenak bakarrik.
c.	Norberarenak zein besterenak.
d.	Jardueraren lurralde-eremuaren arabera.

20. ¿Qué vehículos puede utilizar un operador logístico para desarrollar su actividad?	
a.	Solo los propios.
b.	Solo los ajenos.
c.	Tanto los propios como los ajenos.
d.	Depende del ámbito territorial de su actividad.



21. Noiz aurkeztu behar da salgaiak Europar Batasuneko aduana-lurraldean sartzeko deklarazio laburtua?	
a.	Salgaiak sartu aurretik.
b.	Salgaiak sartzen diren une berean.
c.	Salgaiak sartu eta 24 ordura arte.
d.	Salgaiak sartu eta 48 ordura arte.

21. ¿Cuándo hay que presentar la declaración sumaria de entrada de mercancías en el territorio aduanero de la Unión Europea?	
a.	Antes de que las mercancías sean introducidas.
b.	En el mismo momento en el que las mercancías son introducidas.
c.	Hasta 24 horas después de que las mercancías hayan sido introducidas.
d.	Hasta 48 horas después de que las mercancías hayan sido introducidas.

22. Europar Batasuneko trantsitu-erregimenean sartutako salgaiak onartzen dituen garraiolariak ba al du salgai horiek helmugako aduanan aurkezteko erantzukizunik?	
a.	Bai.
b.	Bai, baina soilik salgaiak iruzur egiteko arrisku handia dutenean.
c.	Ez, erantzukizun hori salgaien bidaltzaileari bakarrik dagokio.
d.	Ez, erantzukizun hori salgaien hartzaileari bakarrik dagokio.

22. El transportista que acepte mercancías incluidas en el régimen de tránsito de la Unión, ¿es responsable de presentarlas en la aduana de destino?	
a.	Sí.
b.	Sí, pero solo cuando las mercancías presenten riesgo elevado de fraude.
c.	No, esta responsabilidad solo incumbe al expedidor de las mercancías.
d.	No, esta responsabilidad solo incumbe al destinatario de las mercancías.

23. Aduana-prozeduren eremuan, zer da salgaiak jasotzea?	
a.	Salgaiak aduana-agintarien esku jartzea.
b.	Salgaiak sartu diren aduana-erregimenaren helburuen esku jartzea.
c.	Salgaiak Europar Batasuneko aduana-lurraldean sartu diren ibilgailutik deskargatzea.
d.	Salgaiak garraio bide batetik bestera aldatzea mugan.

23. En el ámbito de los procedimientos aduaneros, ¿qué se entiende por levante de las mercancías?	
a.	Poner las mercancías a disposición de las autoridades aduaneras.
b.	Poner las mercancías a disposición de los fines del régimen aduanero en el que se han incluido.
c.	Descargar las mercancías del vehículo en el que han sido introducidas en el territorio aduanero de la Unión.
d.	Transbordar las mercancías en la frontera de un medio de transporte a otro.



24. Salgai arriskutsuen zein garraio daude RIMPa nahitaez erabiltzetik salbuetsita?	
a.	Osasun-zentroen funtzionamendurako behar diren gasak.
b.	Portu eta aireportuetarako erregaiak.
c.	Gasolina-zerbitzuguneak hornitzeko gaiak.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

24. ¿Qué transportes de mercancías peligrosas están exentos de la utilización obligatoria de la RIMP?	
a.	Los gases necesarios para el funcionamiento de centros sanitarios.
b.	Los combustibles con destino a puertos y aeropuertos.
c.	La materias destinadas al aprovisionamiento de estaciones de servicio.
d.	Todas las respuestas son correctas.

25. Zer adierazten du zisterna ibilgailuaren aurrealdean kokatutako panel laranjaen behealdean agertzen den zenbakiak?	
a.	Ibilgailuaren matrikula zenbakia da.
b.	Arrisku zenbakia da.
c.	Bastidorearen zenbakia da.
d.	Materiaren identifikazio zenbakia da (NBE).

25. ¿Qué indica el número que aparece en la parte inferior del panel naranja colocado en la parte delantera del vehículo-cisterna?	
a.	Es el número de la matrícula del vehículo.
b.	Es el número de peligro.
c.	Es el número del bastidor.
d.	Es el número de identificación de la materia (ONU).

26. Zenbatean behin egin behar da etengabeko prestakuntzako ikastaro bat gidariaren kualifikazio-txartela (GGA) berritzeko?	
a.	Gutxienez, 10 urtean behin.
b.	Gutxienez, 3 urtean behin.
c.	Gutxienez, 5 urtean behin.
d.	Ez da beharrezkoa txartela berritzea, indarraldi mugagabea baitu.

26. ¿Cada cuánto tiempo debe seguirse un curso de formación continua para la renovación de la tarjeta de cualificación del conductor (CAP)?	
a.	Al menos, cada 10 años.
b.	Al menos, cada 3 años.
c.	Al menos, cada 5 años.
d.	No es necesario renovar la tarjeta, pues tiene vigencia indefinida.



27. Nolakoak dira motorrean injektatzen den erregai kantitatea eta motorreko indar-parea, motorrak biraketa txikietan biratzen duenean?	
a.	Kantitatea txikia da, eta, beraz, baita indar-parea ere.
b.	Kantitatea txikia da, baina indar-parea, aldiz, handia da.
c.	Kantitatea handia da, eta, beraz, baita indar-parea ere.
d.	Kantitatea handia da, lortutako indar-parea ez bezala.

27. ¿Cómo es la cantidad de combustible que se inyecta en el motor y el par motor cuando este gira a bajas revoluciones?	
a.	Pequeña y, por tanto, también lo es el par motor.
b.	Pequeña, pero en cambio el par motor es grande.
c.	Grande y, por tanto, también lo es el par motor.
d.	Grande, al contrario que el par motor producido.

28. Nola esaten zaio oxigenoa diluitzean edo lekualdatzean datzan sute bat itzaltzeko metodoari?	
a.	Inhibizio katalitikoa.
b.	Disoluzioa.
c.	Sofokazioa.
d.	Oxigenazioa.

28. ¿Cómo se denomina el método de extinción de un incendio consistente en la dilución o desplazamiento del oxígeno?	
a.	Inhibición catalítica.
b.	Disolución.
c.	Sofocación.
d.	Oxigenación.

29. Nolakoak dira ibilgailuaren fabrikatzaileak adierazitako zehaztapen teknikoetan agertzen diren indar-pare eta potentzia balioak?	
a.	Gutxienekoak.
b.	Batez bestekoak.
c.	Handituak.
d.	Gehienekoak.

29. ¿Cómo son los valores de par y potencia que aparecen en las especificaciones técnicas indicadas por el fabricante del vehículo?	
a.	Mínimos.
b.	Medios.
c.	Incrementados.
d.	Máximos.

30. Zer posizio dagokio hiri-garraioko eta errepideko garraioko gidari lanari, lanbide guztiei dagokienez, izandako istripu hilgarrien kopurua kontuan hartuta?	
a.	Laugarrena.
b.	Hirugarrena.
c.	Bigarrena.
d.	Lehena.

30. ¿Qué posición corresponde a la ocupación de conductor de transporte urbano y por carretera, respecto del conjunto de ocupaciones profesionales, por razón del número de accidentes mortales sufridos?	
a.	Cuarta.
b.	Tercera.
c.	Segunda.
d.	Primera.



31. Ibilgailu batek mugimenduan dagoenean daraman energiari dagokionez,	
a.	batez ere ibilgailuaren zabaleraren arabera da.
b.	ibilgailuaren luzeraren arabera da.
c.	ibilgailuaren masaren eta abiaduraren arabera da.
d.	ibilgailua gelditzea eragiten du.

31. La energía que lleva asociada un vehículo al estar en movimiento:	
a.	depende fundamentalmente de la anchura del vehículo.
b.	depende de la longitud del vehículo.
c.	depende de la masa y velocidad del vehículo.
d.	hace que el vehículo se pare.

32. Nondik zirkulatzen den kontuan hartuta, erregai-kontsumoa optimizatzeko teknika egokiak gomendatzen dira. Zer gomendatzen da lauan?	
a.	Azeleragailu-pedala zapalduta edukitzea.
b.	Ahal den guztietan itopuntuan zirkulatzea.
c.	Takometroaren orratza zona ekonomikoaren ezker aldean mantentzea, gutxieneko kontsumo-erregimen espezifikotik ahalik eta hurbilen.
d.	Hautatutako transmisio erlazioa murriztea.

32. En función de por dónde se circule, se recomiendan unas técnicas indicadas para optimizar el consumo de carburante. ¿Qué se recomienda en llano?	
a.	Mantener el pedal acelerador presionado.
b.	Circular en punto muerto siempre que sea posible.
c.	Mantener la aguja del tacómetro en la parte izquierda de la zona económica, lo más cerca posible del régimen de consumo específico mínimo.
d.	Reducir la relación de transmisión seleccionada.

33. Zer erregai dago inplikaturatuta A motako su batean?	
a.	Solido sukoiak.
b.	Likido sukoiak.
c.	Gas sukoiak.
d.	Gas erregarriak.

33. ¿Qué combustible está implicado en un fuego de clase A?	
a.	Sólidos inflamables.
b.	Líquidos inflamables.
c.	Gases inflamables.
d.	Gases comburentes.

34. Gidatzean nekea saihesteko, geldialdiak zenbatean behin egitea gomendatzen da?	
a.	300 kilometroan behin.
b.	100 - 150 kilometroan behin.
c.	150 - 200 kilometroan behin.
d.	200 - 250 kilometroan behin.

34. Para evitar el cansancio en la conducción se recomienda realizar paradas cada:	
a.	300 km.
b.	100 km - 150 km.
c.	150 km - 200 km.
d.	200 km - 250 km.



35. Adierazi baieztapen egokia erregaia aurrezteko.	
a.	Arrankatzean, itxaron pixka bat martxan jarri aurretik, zure ibilgailua gasolinazkoa bada.
b.	Arrankatzean, jarri berehala martxan, zure ibilgailua diesela bada.
c.	Arrankatzean, saiatu biraketa-erregimen altu batera azkar iristen.
d.	Arrankatzean, itxaron pixka bat martxan jarri aurretik, diesel ibilgailua bada.

35. Señale la afirmación adecuada para el ahorro de combustible.	
a.	Al arrancar, esperar unos instantes antes de iniciar la marcha si su vehículo es de gasolina.
b.	Al arrancar, iniciar inmediatamente la marcha si su vehículo es diésel.
c.	Al arrancar, tratar de llegar rápidamente a un régimen de revoluciones alto.
d.	Al arrancar, esperar unos instantes antes de iniciar la marcha si su vehículo es diésel.

36. Adierazi zein den erantzun okerra.	
a.	Balaztatzeko denbora gehiago izateko, gidariak abiadura murriztu beharko duela aurreikusi behar du.
b.	Gidariak aurreikusten badu abiadura murriztu beharko duela, ibilgailuaren inertzia dinamikoa erabiliko da motorraren barne marruskadurak gainditzeko.
c.	Ibilgailuaren inertzia dinamikoa erabiliz, kontsumoa murriztu egiten da.
d.	Ibilgailuaren inertzia dinamikoa erabiliz, balazten higadura areagotu egiten da.

36. Señale la respuesta incorrecta.	
a.	Para tener más tiempo para frenar, el conductor debe prever que va a necesitar reducir la velocidad.
b.	Si el conductor prevé que va a necesitar reducir la velocidad, será la inercia dinámica del vehículo la que se gaste en vencer los rozamientos internos del motor.
c.	Utilizando la inercia dinámica del vehículo, el consumo disminuye.
d.	Utilizando la inercia dinámica del vehículo, el desgaste de frenos aumenta.

37. Gidari batek aste batean 40 ordu egiten baditu gidatzen, zenbat ordu egin ditzake hurrengo astean?	
a.	56 ordu.
b.	90 ordu.
c.	50 ordu.
d.	Ez dago ordu mugarik.

37. Si un conductor una semana conduce 40 horas, ¿cuántas horas puede conducir la siguiente semana?	
a.	56 horas.
b.	90 horas.
c.	50 horas.
d.	No existe límite.



38. GGA lortzeko etengabeko prestakuntza ikastaroa amaitu ondoren, zer epe dute ikasleek dagokion azterketa gainditzeko?	
a.	Hilabete.
b.	Hiru hilabete.
c.	Urtebete.
d.	Etengabeko prestakuntza egin ondoren ez da beharrezkoa azterketa bat egitea.

38. Una vez finalizado el curso de formación continua CAP, los alumnos tienen que superar un examen en el plazo de:	
a.	un mes.
b.	tres meses.
c.	un año.
d.	La formación continua no exige la realización de un examen posterior al curso.

39. Abiadura-kaxaren erabilera okerrak:	
a.	ez dio eragiten kontsumoari.
b.	kontsumoa handitzeko faktore erabakigarria da.
c.	ibilgailuaren ekikonsumo-kurbei eragiten die.
d.	"fanding" efektua areagotzen du.

39. Un manejo incorrecto de la caja de velocidades:	
a.	no afecta al consumo.
b.	es un factor decisivo para que el consumo aumente.
c.	afecta a las curvas de equiconsumo del vehículo.
d.	incrementa el efecto "fanding".

40. Takografoa erabiltzetik salbuetsita dauden ibilgailuek, erabili beharra al dute salbuetsita dauden zerbitzuaren aurretik edo ondoren hutsik nahitaez egiten dituzten ibilbideetan?	
a.	Beti.
b.	Inoiz ez.
c.	Ez, hutsik egindako ibilbidea 5 km-koa bada.
d.	Hutsik egindako ibilbidea 5 km baino gehiagokoa bada bakarrik.

40. Los vehículos exentos del uso del tacógrafo, ¿tienen que usarlo en los recorridos en vacío que necesariamente realicen antes o después del servicio en el que están exentos?	
a.	Siempre.
b.	Nunca.
c.	No si el recorrido en vacío es de 5 km.
d.	Solo si el recorrido en vacío es de más de 5 km.

41. Karga bidera erortzea bezalako egoera baten aurrean, zer jarduketa egin behar dira?	
a.	Ibilgailua baztertu egin behar da, eragindako arriskua areagotu ez dezan eroritako zamarekin batera.
b.	Oztopoa kendu edo baztertu egin behar da.
c.	Galtzada ahalik eta garbien utzi behar da.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

41. Ante una situación como la caída de carga sobre la vía, ¿qué actuaciones deben realizarse?	
a.	Se deberá apartar el vehículo para evitar que, junto con la carga caída, acreciente el riesgo provocado.
b.	Se deberá retirar o apartar el obstáculo.
c.	Se deberá dejar lo más limpia posible la calzada.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.



42. Zer da motorreko indar-parea?	
a.	Pistoiak birabarkiaren gainean transmititzen duen esfortzua da.
b.	Pistoiaren mugimendu-abiadura da.
c.	Pistoiak goiko itopuntuaren eta beheko itopuntuaren arteko distantzia egiteko behar duen denbora da.
d.	Pistoiak bi lasterketa egiteko behar duen denbora da.

42. ¿Qué es el par motor?	
a.	Es el esfuerzo que transmite el pistón sobre el cigüeñal.
b.	Es la velocidad de movimiento del pistón.
c.	Es el tiempo que tarda el pistón en recorrer la distancia que hay entre el punto muerto superior y el punto muerto inferior.
d.	Es el tiempo que tarda el pistón en realizar dos carreras.

43. Adierazi zein den erantzun okerra:	
a.	Istripu-adierazpen adiskidetsuak erraztu eta arindu egiten du kalte-ordaina izapidetzen dutenen lana.
b.	Istripu-adierazpen adiskidetsuak erraztu eta arindu egiten du aseguru-etxeen arteko hitzarmenen aplikazioa.
c.	Istripu-adierazpen adiskidetsuaren ondorioz, ibilgailuen ezbehar-kopuruak behera egiten du.
d.	Istripu-adierazpen adiskidetsuak erraztu eta arindu egiten du konponketen eta kalte-ordainen ordainketa.

43. Señale la afirmación incorrecta:	
a.	La declaración amistosa de accidente facilita y agiliza la labor de los tramitadores de la indemnización.
b.	La declaración amistosa de accidente facilita y agiliza la aplicación de convenios entre las compañías aseguradoras.
c.	La declaración amistosa de accidente hace que disminuya el número de siniestros de vehículos.
d.	La declaración amistosa de accidente facilita y agiliza el pago de las reparaciones e indemnizaciones.

44. Kateak jarrita zirkulatzen denean, zein da gomendatzen den ghieneko abiadura?	
a.	80 km/h.
b.	60 km/h.
c.	70 km/h.
d.	50 km/h.

44. ¿A qué velocidad máxima es aconsejable circular cuando se hace uso de cadenas?	
a.	80 km/h.
b.	60 km/h.
c.	70 km/h.
d.	50 km/h.

45. Zer ahalbidetzen du ASR trakzio-kontrolak?	
a.	Balaztatze distantzia handitzea.
b.	Balaztak blokeatzea.
c.	Abiarazte segurua itsaskortasun txikiko baldintzetan.
d.	Derrapatzea.

45. ¿Qué permite el control de tracción ASR?	
a.	Aumentar la distancia de frenada.
b.	Bloquear los frenos.
c.	Una arrancada segura en condiciones de baja adherencia.
d.	Derrapar.



46. Agintaritzaren eskudunak garraio-ibilgailu bat ibilgaitzen duenean, noren ardura da ibilgailuaren zaintza?	
a.	Guardiako epailearena.
b.	Gertuen dagoen tokiko udaltzaingoarena.
c.	Ibilgaitzea agintzen duen agintaritzarena.
d.	Garraiolariarena.

46. Cuando se produce la inmovilización de un vehículo de transporte por la autoridad competente, ¿de quién es la responsabilidad de la custodia del vehículo?	
a.	Del juez de guardia.
b.	De la Policía local del lugar más cercano.
c.	De la autoridad que ordena la inmovilización.
d.	Del transportista.

47. Salbuespenak salbuespen, zenbat aste jarraian murriztu dezake gidari batek asteako atsedena 24 ordu, Europako gizarte-araudiaren arabera?	
a.	Ezin da bi aste jarraian murriztu.
b.	Behar dituen guztiak.
c.	3 aste, gehienez.
d.	2 aste, gehienez.

47. Salvo excepciones, ¿cuántas semanas consecutivas puede reducir un conductor su descanso semanal a 24 horas, según la reglamentación social europea?	
a.	No se puede reducir 2 semanas consecutivas.
b.	Todas las que necesite.
c.	Solo 3 semanas, como máximo.
d.	Solo 2 semanas, como máximo.

48. 21 orduko asteako atsedena murriztua egiten duen gidari batek arau-hausterik egiten al du?	
a.	Ez, bat ere ez.
b.	Bai, arau-hauste larria.
c.	Ez, hurrengo hiru asteetan berreskuratzen badu falta zaiona.
d.	Bai, 24 ordu baino gutxiagoko atsedena hartzen badu, arau-hauste oso larria da.

48. Un conductor que realiza un descanso semanal reducido de 21 horas, ¿comete alguna infracción?	
a.	No, ninguna.
b.	Sí, una infracción grave.
c.	No, si recupera en las tres semanas siguientes lo que le falta.
d.	Sí, siempre que descanse menos de 24 horas es una infracción muy grave.

49. Aukera hauetatik, zein da atzeratzaileen berezko abantaila bat?	
a.	Balaztatze luzeetan balaztak gehiegi berotzea saihesten laguntzen dute.
b.	Ardatzen balaztatze funtzio gehigarria egiten dute.
c.	Ez dute higadurarik.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

49. De las siguientes opciones, ¿cuál es una ventaja propia de los retardadores?	
a.	Ayudan a evitar el sobrecalentamiento de los frenos durante frenadas prolongadas.
b.	Realizan una función de frenado adicional de los ejes.
c.	Están exentos de desgaste.
d.	Todas las respuestas son correctas.



50. Zein da istripu-adierazpen adiskidetsuaren helburu nagusia?	
a.	Ibilgailu batean izandako kalteak ikertzea.
b.	Zirkulazio-istripu batean kaltetutakoei ahalik eta azkarren kalte-ordaina ematea.
c.	Ezbehar baten erantzuleak nor diren jakitea.
d.	Justizia Administrazioaren eta aseguru-etxeen lana erraztea.

50. ¿Cuál es el principal propósito de la declaración amistosa de accidentes?	
a.	Averiguar los daños producidos en un vehículo.
b.	Indemnizar lo antes posible a los perjudicados en un accidente de circulación.
c.	Averiguar la identidad de los responsables de un siniestro.
d.	Facilitar la labor de la Administración de Justicia y de las compañías de seguros.

51. Zein dira takografo digitalak dituen lau funtzionamendu-moduak?	
a.	Kontrolakoa, enpresakoa, probakoa eta operatiboa.
b.	Kontrolakoa, enpresakoa, kalibratzekoa eta poliziakoa.
c.	Kontrolakoa, enpresakoa, kalibratzekoa eta operatiboa.
d.	Ez ditu lau funtzionamendu-modu; bost ditu.

51. ¿Cuáles son los cuatro modos de funcionamiento que tiene el tacógrafo digital?	
a.	De control, de empresa, de prueba y operativo.
b.	De control, de empresa, de calibrado y de policía.
c.	De control, de empresa, de calibrado y operativo.
d.	No tiene cuatro modos de funcionamiento, tiene cinco.

52. Zein ez da bezero zailtzat hartzen garraio-enpresan?	
a.	Eztabaidazalea.
b.	Harroa.
c.	Iraingarria.
d.	Ulerkorra.

52. ¿Cuál no es un tipo de cliente difícil en la empresa del transporte?	
a.	El discutiador.
b.	El altivo.
c.	El ofensivo.
d.	El comprensivo.

53. Zenbat su-itzalgailu eraman behar ditu salgaiak garraiatzeko 20.500 kg-ko baimendutako gehiengo masa (BGM) duen ibilgailu batek, 1999ko uztailaren 27ko Aginduaren arabera?	
a.	Bat.
b.	Bi.
c.	Bat edo bi, titularraren aukeran.
d.	Bat ere ez.

